

UZTARRIA

ZENBAKI HONEKIN BATERA

+ GUKA ALDIZKARIA



EKINDAR

KOMUNITATE BAT ENERGIARENTZAT



erreforma integralak

dica



URRATEGI
INTERIORISMO
bone diseinatu

www.urrategiinteriorismo.com
Aragasta 27 Arretxe 9
20600 Eibar 20730 Azpeitia

1 ARNASTU

Garbitu airea, zure etxeko partikulak, alergenak adibidez, kenduz. **Dyson etxea, Milar Larramendin bakarrik.**



2 XURGATU

Ke-erasuzgailu desberdinak ditugu: isilak, eraginkorrak eta garbiak. **Aukeratu zurea!**



3 BERRITU

Eman sukaldeari itxura berria, armairuak eta kaxoiak bakarrik aldatuz. **Obra txikia, aldaketa handia!**



Julio Urkixo, 16 bis • AZKOITIA • 943-85 18 97 • www.milar.eus



KIMUBAT
— GARDEN

*Udaberrian ere,
lora zaitetz!*

Udaberria iritsi da, eta honekin, **kolorez beteriko balkoi, lorategi eta terrazak!**

Jantzi zure etxeko natura txokoak garaiko landare eta zuhaitzekin!





UZTARRIA 248

2022-APIRILA

AZALEKO ARGAZKIA:
FREEPK.COM

Aurkibidea

- | | | | |
|----|--|----|---|
| 5 | Iritzia Maialen Etxaniz,
<i>Gudaberriaz.</i> | 30 | Plazan bazan |
| 6 | Zu zeu Hementxe bertan,
Yalila Mouhoub marokoarra. | 33 | Iritzia Oier Etxeberria,
<i>Goaz, gabiltza eta gatoz.</i> |
| 8 | Nire leihotik Haizea Salegi,
<i>Olatuz olatu.</i> | 34 | Bestaldetik Santi Merino ISBko
laguntzailea. |
| 10 | Iritziak Irati Aranguren, <i>Etena</i> ;
Hiromi Yoshida, <i>Bada garaia.</i> | 38 | Iritzia Miren Segurola,
<i>Bat 580ren aurka.</i> |
| 12 | Elkarrikketa Xabi Borda idazlea. | 40 | Iritzi grafikoa Itziar Aranguren. |
| 18 | Erreportajea Ekindar energia
komunitatea. | 42 | Klik! Ibai garbiketa. |
| 26 | Lehiaketa | 46 | Iritziak Janire Alkorta, <i>Energia
nuklear berria?</i> ; Ignacio Arakistain,
<i>Europaren bihotzean.</i> |
| 26 | Erretratua Maite Epelde
lan ikuskaria. | | |

UZTARRIA

TOKIKOM

Argitaratzailea

Urolako Komunikazio Taldea
Koop. Elk.
Soreasu 1. 20730
AZPEITIA
943-15 03 58
uztarria@uztarria.eus
www.uztarria.eus

Zuzendaria:

Julene Frantzesena
Erredaktoreburua:
Ihintza Elustondo
Erredaktore taldea:
Mailo Oiarzabal
Julene Frantzesena
Maialen Etxaniz

Ihintza Elustondo

Diseinu arduraduna
Iñaki Martínez Albizu
Publizitate arduraduna
Angel Sarasua
Zenbaki honetako
kolaboratzaileak:
Haizea Salegi

Irati Aranguren
Hiromi Yoshida
Itziar Aranguren
Olatz Alkorta
Oier Etxeberria
Miren Segurola
Janire Alkorta
Ignacio Arakistain
Elena Margüello

Inprimategia

Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)
Lege Gordailua:
SS-860/2000
ISSN: 1576-7337
Tirada: 2500 ale



Gipuzkoako Foru Aldundia



uztarria
AZPEITIKO KOMUNIKAZIO TALDEA

PUBLIZITATEA



ostadar optika
OPTOKIAK - OPTOMETRISTAK

Jose de Artetxe, 17
Tel. 943-810664
AZPEITIA

Ibai Ondo, 28
Tel. 943-850445
AZKOITIA

EGUZKI
belardenda
dietetika
kosmetika naturala



Kale Nagusia, 67 943-50 94 47 **AZKOITIA**
Urtiarle 9 bis 943-15 00 23 **AZPEITIA**

KIRURI



JATETXE

Loiola hiribidea, 24
LOIOLA - AZPEITIA

Tlfnoa.: 943 81 58 08
Faxa.: 943 15 03 62



CITROËN **Alertza Autoak**
Behar duzun konfiantzazko talerari!

Marka guztietako
ibilgailuen konponketak

943-81 19 15
AZPEITIA
alertza@alertzaautoak.com



EuroTaller EUROTALLER MULTIMARKA ZERBITZUA

IKA
argi lanak s.l.

Instalakuntza Elektrokoak

Urko: 618 96 49 95 / Jon: 649 12 02 71
ikazargi@ikaik@gmail.com www.ikasistemak.com
20730 AZPEITIA

"KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK"

URBISTONDO
MARGOAK

Salbe Auzunea, 35 behea 20730 AZPEITIA - Urrut.: 943 81 57 81

Iuba
ahelkularitza

Analakutak
libros
lehenak
konkistak

Gestioi lanak
Finan administratibak
Gestio inmobiliariak

Tfn: 943 167 329 Faxa: 943 167 379
Eguren saltea: 43-41 Iuba.ahelkularitza.es



Ekain
ALBATARI KLINIKA

Euskal Herria Kalea, 34
20730 **AZPEITIA**
Tel.: 943-15 16 40
Larrialdiak: **688 69 29 51**

adi ARTE ETA
DISEINU
ESKOLA
ELKARTEA

Marraskia eta eskulanak
(haurrak) 17:30 - 19:00

Pintura 16:00 - 17:30
(helduak) 19:00 - 20:30

Talia 18:30 - 20:00

Jose Artetxe kalea, 3
943 81 20 08
arrediseinu@gmail.com
Matrícula urte osan zabalik

IRENE ALTUNA
KOMAGENDA

Loiola-Bide, 26 Tel. 943-81 51 87
www.ikomagenda.com

AZKOITIA



ERLOJU
KONPONKETAK

Arana, 5
AZPEITIA Tel.: 943 81 47 12

JARRI HEMEN
ZURE IRAGARKIA!



Gudaberriaz



MAIALEN ETXANIZ

Martxoko azken hondarrak eramanda, apirileko lehen olatuekin iritsi da udaberria. Bitxiloreak loretzen, egunak luzatzen, eguzki izpiak azala laztantzen, jendea Loiolan, jendea terrazan, marianito bat herriko plazan... Saltokietako erakusleihoek iradokitzen dute kolore argiz janzteko garaia dela, makillajearen tonua aldatzekoa, eguzkitako betaurreko berriak erostekoa... Udazkena malenkoniaz nola, udaberria alaitasunez janzten dugu, janzterik nahi ote duen jakin gabe. Eskuzabalik hartzen du jendeak udaberria, urtaro berriarekin batera aro berri bat hasiko bailitzan. Apirileko aldizkariaren azalak argi izpiak zabaldu dituen arren, argitasunetik eta alaitasunetik urrun, iluntasuna dario udaberriari aurtengoan.

Idatz nezakeen karnabalez, herriko auzoetara itzuliko diren festez edo kultur emanaldien uzta berriaz, zergatik ez. Egiatan, horiez idatzi dut idazten ari naizen testu hau idatzi aurretik. Honako hau aldizkarirako sortzen dudana hirugarren artikulua da, baina jendeak irakurriko duen bakarra. Ezin nion udaberri ilunaz idazteko aukerari izkin egin, ertz guztietan daudelako guda zahar eta berriak. Zortzi hamarkada igaro dira azken Mundu Gerraz geroztik, baina orduetik ez da egon gerrarik gabeko minuturik. Guda batzuk besteak baino isilagoak dira; beste batzuk erabat isilduak. Gerra hotsak Europara iristearekin batera isildu da pandemia. Koronabirusari lekukoa hartu dio Ukrainako gerrak. Baina Ukrainakoa ez da udaberriarekin datorren guda berria.

Orain arte Ukraina non zegoen ez zekien horrek gaur badaki sarraski bat jazotzen ari dela han. Errefuxiatuak gure herrietara iritsi dira, eta askok haien ahotik kontatutako bizipenetatik ezagutuko dute gerraren gordina. Bunkerrak, herrialdetik ihes egin beharra, gosea, suntsitutako herriak eta hiriak, bombardaketak... Gatazka belikoan lehertu da duela zortzi urte hasitako gerra. Baina gerra bat, hori baino askoz gehiago da. Hala ere, besaulkian eserita dagoen euskal herritarren gehiengoak urrun sentitzen du gerra, NATO zer den bost axola zaio, nagia sortzen dio geopolitikak eta etxeko babesean sortutako gerra txikiekin kezkatuta bizi da. Ilundu diguten udaberria argiztatu ezinean ibiliko da jende ugari. Erosketak egin aurretik zer eros dezaketen eta zer ez pentsatuko dute askok. Gerra txikien guduzelaian jarri gaituzte, partida jokatzea debekatu diguten bitartean.

Betikoen gerretan, betikoak galtzaile. Horren adierazle dira gizartearen *ideotizazio* maila kezkagarria, petsamendu kritikorako interes eza, balioen gainbehera, faxismoaren gorakada, lehiakortasunaren normalizazioa, gazteen bizi eredu berriak, desoreka mentalak... Guda berrien aurrean gaude, baina tira, oraingoz udaberria da. ■■■

**ALAITASUNETIK
URRUN, ILUNTASUNA
DARIO UDABERRIARI
AURTENGOAN**

Yalila Mouhoub: "Emakumeok ere badugu makinekin lan egiteko gaitasuna"

TESTUA ETA ARGAZKIA: IHINTZA ELUSTONDO

Marokoko ipar ekialdekoa da Yalila Mouhoub, baina 2008az geroztik, Euskal Herrian bizi da. Lehenik, Azkoitian egin zituen zenbait urte, eta gaur egun Azpeitian du bizitokia.

Marokon, kontrol orokorreko arduraduna zinen ehungintzako fabrika batean.

Bai, mila langile inguru zeuden nire ardurapean. Kalean barrez ikusiko nauzue normalean, baina lanean serio aritu behar izaten nuen.

Zergatik erabaki zenuen lan hori utzi eta Euskal Herrira etortzea?

Bizitza hobe baten bila etorri nintzen, mundu guztiko migratzaileek egiten duten bezala. Marokotik Europara etorrira, denok uste dugu bizitza hobe izango dugula. Espainiatik Alemaniara ere horregatik joaten da jendea.

Herrialdea aldatuta, nola aldatu da zure bizitza?

Marokon, lan egiten nuen, baina horretaz aparte, ez neukan inolako ardurarik etxean, gurasoekin bizi nintzelako. Euskal Herrian, ezberdina da egoera; hemen ardura handia dut, eta bizitza nola bizi ikasi dut. Gurasoekin bizi zarenean, haien babesa duzu, baina bakarrik zaudenean, ikasi egiten duzu bizitzako kolpe bakoitzarekin.

Zuretzako, beraz, ikasketa bat izan da Euskal Herrira etorri izana.

Bai. Gurasoen etxean ez nuen platera bat ere garbitzen, baina hemen hori eta beste gauza asko egiten ikasi dut. Marokon, etxalde bat dauka aitak, eta asko laguntzen nion han. Dena den, sukaldean aritzea ez zitzaidan gustatzen, eta ez nekien horretan.

Euskal Herrian bizi zarenetik, hainbat lanetan aritu izan zara.

Bai, lehenik, Azkoitiko taberna batean aritu nintzen, eta orain, Bordatxo tabernan lan egiten dut, asteburuetan. Sukaldean aritzen naiz, eta oso gustura nago. Oso ondo hartu naute. Gainera, bulego bat garbitzen dut, eta hango arduradunek ere oso ondo tratatzen naute. Gabonetan oparia eta dena egin zidaten, beste langileei bezalaxe. Jende ona topatu dut Azpeitian.

Ekoizpen mekanikoko laguntzaile ikastaroa ere egin duzu.

Bai, eta oso gustura egin dut, gainera. Praktikak ere egin nituen, Azkoitiko Sidenorren. Orain, ikasketak amaituta, horiei lotutako lanen bat bilatzea gustatuko litzaidake. Mekanizatu arloa asko gustatzen zait: umea nintzela, beti nik konpontzen nituen etxean hondatzen ziren tresnak. Eskulan kontuetan ondo moldatu izan naiz beti. Egia esan, asko ikasi dut ikastaroan, eta orain gehiago ikasteko gogoia daukat.

Ikastaro horretako partaide gehienak gizonak izango ziren, ziur asko.

Bai, baina emakumeek ere berdin-berdin egin ditzakegu halako lanak. Gizonek emakumeek baino indar handiagoa izan ohi dute, baina guk ere badugu makinekin lan egiteko gaitasuna. Ehungintzako lantegian ere gizon askorekin aritzen nintzen beharrean, baina niretzako berdin du emakumea edo gizona izan, ez dago ezberdintasunik. Inportanteena lanerako eta ikasteko gogoia izatea da. Egiten dudana lanagatik baloratzea nahi dut nik, eta ez emakumea naizelako.

Maroko eta Euskal Herria oso ezberdinak izango dira...

Bai. Ni bizi nintzen zonaldea fabrikaz inguratuta dago. Lorategiak ere badaude han, baina ez hemen bezalakoak. Hemen aldapa eta mendi asko dago, eta han ez daukagu halakorik. Inguruko mendi gehienak igo ditut, lagun batekin. Asko gustatzen zait leku berriak ezagutzea; Igeldora joan nintzen egun batean, esaterako. Nahiko nukeena eta oraindik egin ez dudana da gaztelania eta euskara ondo ikastea. Gaztelania pixka bat badakit, baina aditzekin-eta zailtasunak dauzkat oraindik.

Zer egin ohi duzu denbora librean?

Oinez ibili. Batzuetan hamazazpi kilometro egiten ditut oinez. Azkoiti aldera joaten naiz lehenik, gero Lasaora, Urrestillara...

Sorterriaren falta sumazten al duzu?

Bai, familiarena eta gertukoena, batez ere. Hiru urte daramatzat hara joan gabe. ■■■



Olatuz olatu

ARGAZKIA ETA TESTUA: HAIZEA SALEGI

Olatuen moduan, sarritan harro,
batzuetan bare.
Askotan handi,
eta askotan txiki.

Gora eta behera gabilta,
etorriko zaigunaren atzetik,
dagoeneko atzean geratu denaren menpe,
eta nahi gabe oraina ahaztuz.

Olatu zailak iristean,
bi aukera suertatzen zaizkigu:
beldurtu eta urak gain hartzea
edo burua altxatu eta harro surfeatzea
olatuz olatu. ■■■







Etena

Sarri bidean azaltzen da etena, ez aurrera, ez atzera, geldi geratzen da dena. Berriz martxan jartzea izaten da zailena". Gaur goizean autoan entzuniko hitz horiek Eneritz Aulestiarenak dira, Julen Alonsok gozoki doinua jarrita. Autoan isilik joan ohi naiz gehienetan, musikak nire bizitzari taupada asko ematen dizkion arren, gogoko dut bidaia isilik egitea. Kopiloturen bat sartzean, ordea, ttak! *Play* botoira luzatu ohi dute eskua. Pilotu lagunak ere beharrezkoak dira bizitzako bidaian erritmoa jartzeko, beraz, gustura hartzen ditut! Gaur, ordea, neuk jarri dut musika martxan, barruko korapiloak hala eskatuta; eta kasualitatez edo,

bozgorailutik atera diren lehen hitzak izan dira horiek.

Bizitza arrapalada batean doa, eta norbere lasterketa lasai hartu eta behatu ordez, are eta itsuago eta azkarrago egiten dugu korrika. Izan ordeka, izan malda, berdindu! Aurrera goaz bizitzeko denborarik gabe, itsumustuan, tupust han eta hemen, salto han eta segi aurrera.

**ETENAK HAN-HEMENKA
AGERTZEN ZAIZKIGU
BIZITZAN, ETA EDOZEIN
IZAN DAITEKE STOP
BAKOITZAREN KAUSA**

Baina bizitzan badira etenak, salto batean pasatu ezin direnak. Zer dira etenak? Nola bizi ditugu? Nondik agertzen dira? Atzotik gaurrera etenaldi luzea hasi dudan sentipena dut. Harreman askori agur esan behar izan diet denboraldi luzerako, egunerokotasun azkarra ere amaitu egin zait. Abestiak dioen gisan, ez aurrera, ez atzera, geldi geratzen da dena! Eta orain, zer?

Etenak garapenerako pausaguneak direla uste dut. Bizitza ikusteko ditugun arnasaldiak dira, geratu, behatu eta egunerokotasunari kontzienteago ekiteko; behar-beharrezkoak, bai etenaldi gozo, gazi, zein gazi-gozoak. Argi dut nire etena ezinbestekoa dela;

HAUXE BAI JENEROA!



arnasteko behar genuen tarte da, eta iritsi zaigu. Geldiune gozoa da, nahiz eta etenaldia izateak beldurtzen nauen.

Batzuetan, ordea, etena betirako pausa bezala dator; tupustean, tunelaren amaierako argirik gabe. Zer egin medikuak zure kide kuttun batek hilabeteko bizia duela esaten dizunean? Haren arnasaldia eten egingo dela badakizu. Baina nola esan berari arrapaladan daramagun egunerokotasunean egonaldia hartzeko, lasterketako azken esprinta goza dezan? Eta zuk, berarekin esprinta korritzeko, nola eten zure korrikaldia?

Etenak han-hemenka agertzen zaizkigu bizitzan, eta edozein izan daiteke stop bakoitzaren kausa. Batzuetan

haizea kontra izango dugu, besteetan, berriz, alde; baina zoriaren aurrean panpinak gara, inor ez baita izango patuaren jaun eta jabe. Ezinezkoa da zoria saihestea. Beraz, patuaren geltokian beldurrik gabe jaitsi, erlojua ahaztu, musuak luzatu eta abar. Perfekzioa ez da inoiz existitu, egun batzuetan gozatuz zein besteetan sufrituz, bere poz eta bere min, bizitzak denak ditu.

Gaur goizean nire etena tarteko, orri xume hauetan zer idatzi ez nekiela nenbilela, lagun bati laguntza eskatu diot eta bere bizitzaren berri eman dit. Eskerrak Julen, Eneritz eta lau lagunok elkartu garen elkarren minak goxatu, pozak indartu eta bizitza berpizteko. Besarkada bana! ■■■

HAN ETA HEMEN



HIROMI YOSHIDA

Bada garaia

Euskara munduko hizkuntzarik zailena da", diote oraindik batzuek harro, munduko hizkuntzarik zailena jakiteagatik, eta beste batzuek euskaraz ez ikasteko aitzakia gisa. Bada mito hori albo batera uzteko garaia, hizkuntza guztiak baitira zailak.

Hizkuntza bizi garen munduko alderdi guztiak adierazteko tresna konplikatu da, eta horrelako tresna bat ezin da erraza izan. Hizkuntza bat zaila ala erraza den erabakitzeko irizpidea norberak hizkuntza horrekin daukan erreferentziaren araberakoa da. Italian dakien batek esango du gaztelania erraza dela, biak jatorri berekoak eta oso antzekoak direlako. Euskarak antzeko hizkuntzarik (jatorri berekorik) ez duenez, inork ez dauka bere hizkuntza eta euskara lotzen dituen erreferentziarik. Horrek sortzen du aurrez aipatutako mitoa.

Beraz, hizkuntza bat zaila ala erraza den esaterakoan erabiltzen den irizpidea oso 'egozentrikoa' da. Kriterio hori kenduta, hizkuntza guztiak tresna konplikatuak besterik ez dira. Zaila izateak, gainera, ez du hizkuntza baten balioa areagotzen, ezta gutxitzen ere. Euskarak bere zailtasuna dauka, beste hizkuntza guztiek bezala. ■■■

N: GIZONEK GERRA EGIN, HAUR-EMAKUMEEK PAIRATU



"Errealitatea pikutara doan sentipena inoiz baino nabariagoa da"

XABI BORDA IDAZLEA

Hamahiru urteko etenaren ostean, hirugarren poesia liburua ondu du Xabi Bordak: 'Urtu aurretik'. Egunerokoari darion ezegonkortasuna da olerkiak biltzen dituen haria, baina esperantzak ere badu bere tokia. Lanak "mugarri bat" izan nahi du idazlearen ibilbidean: "Aurrerantzean gehiago idaztea espero dut". Testua: **Ihintza Elustondo**. Argazkiak: **Ihintza Elustondo eta utzitakoak**.

Formazioz ingeniaria izanagatik, Xabi Bordak (Azpeitia, 1981) bazuen barnean nolabaiteko hutsunea. Halaxe, letrekin, literaturarekin, topo egin zuen bidean, eta harrezkero, hiru poesia liburu kaleratu ditu: *Birika zatiak* (Susa, 2004), *Gulliverren lokarriak* (Elkar, 2009) eta orain gutxi jaio den *Urtu aurretik* (Susa). Tarte horretan, Jotakie musika taldearen historia jasotzen duen liburu bat ere kaleratu zuen. Inprentatik atera berri den *Urtu aurretik* eskuetan, azken lanaren nondik norakoak aletu ditu.

"Ez genekien nola iritsi ginen haraino / eta larriagoa / inork ez zuen ideiarik handik nola atera". Zure liburuko lehen poemako hitzak dira. Etsipen kutsua dute...

Bai, hori izango da libururen zain inportanteenetakoa: balantzaka ari den eta erortzera doan ingurune batean sentitzea, zerbait gertatzear den sentipena izatea eta ez jakitea nola iritsi zaren horra. Derrepente

kontzientzia hartzea, eta sentitzea egunerokotasunean ezer ez dagoela ziurtatuta, bermatuta. Sentimendu hori nagusitzen da: bat-batean, kontrolatzen ez dudana egoera batean nago; uste dut zain hori, sentipen hori, dagoela liburu guztian. Ziurgabetasun hori presente dago hasieratik, eta liburu guztian mantentzen da hari bezala.

Urdaileko zirimola, kezka, egonezina... Egungo errealitateak sortutako egonezin sentipena presente dago une oro.

Bai. Azkenean, bizi dugun errealitatea pikutara doan sentipena inoiz baino nabariagoa da garai hauetan: pandemia batetik gatoz, eta horren aurrean, denok sentitu gara dudaz nahiz kezka beteta, kontrolatzen ez dugun egoera batean. Etxean sartu gintuzten, eta handik irteterako, gerra bat daukagu Ukrainan eta beste ziurgabetasun egoera batean gaude. Ia-ia konstante bat bilakatu da ziurgabetasun hori. Uste dut hala izango zela lehen ere: ezin dugu ahaztu gu ere gerra batetik gatozela. Ez dut nahi pentsatu gure aitona-amonek zer bizi izan





Xabi Borda, Dinamoa sormen gunean. IHINTZA ELUSTONDO

zuten, baina antzeko zerbait izango zen sentipen aldetik. Ziurgabetasun hori hori egon da betidanik. Are gehiago, esango nuke, momenturen batean egoera kontrolatzen dugula pentsatuz bizi izan bagara, errealitatea baino irudikeria gehiago izan dela.

Koronabirusa, ixten ari diren enpresak, klima aldaketa... aipatzen dira olerkietan, eta horri lotuta, errealitateari ihes egiteko nahia ere bai.

Bai, hori dena atrezzo da; hau da, agertokia. Hori da olerkietan dauden subjektu denak dauden mundua, mundu ezegonkor bat, eta hor barruan sortzen diren sentimenduei edo gauzei erreparatzen zaie poemetan: dela maitasuna, dela elkartasuna edo dela anaitasuna. Errealitateari ihes egiteko nahia baino gehiago, akaso ulertzeko nahia da. Aipatu dugun lehen poema horretan, ohartu gara egun batetik bestera airean lehertuko den egoera batean gaudela. Eta orain, zer? Hor nola biziko gara? Nola laguntzen diogu elkarri? Nola bilatzen dugu elkar eszenatoki horren barruan? Halako galderei erantzuten zaie poemetan. Ihes egiteko baino, esango nuke, alde batetik, mundu aldakor

batean bizi garela onartzeko nahia dela, eta bestetik, horren inguruan sortzen diren kezka denei bidea irekitzen zaiela.

Momentu batean, bikote harreman bat loratzera doala dirudi, baina beti sortzen da zalantza: ba ote da, ez ote da? Denean eragiten du ezegonkortasun horrek.

Bai. Poemetan asko bilatzen da agertoki hori; eguneroko bizimodua apurtzen duten ertz ezberdinak lantzen saiatu naiz liburuan. Eta askotan, hor daude dudak. Izan ere, ezegonkortasuna badago gizartean edo familia barruan ere, komunitate barruan. Ezegonkortasuna ez dute klima aldaketak edo pandemiak soilik eragiten, ez dira gauza handiak bakarrik errealitate horren eragile. Mundu txikian ere gertatzen dira gauzak, mundu txiki horretarako handiak izan daitezkeenak.

Horrelako egoera batzuekin ibili naiz jolasean.

Xabi Bordari etsipena eragiten al dio gaur egungo munduak?

Ez. Kezkak dauzkatz, beste edozeinek bezala, baina gehiago izan da jolas moduan egindako zerbait. Adibidez, 2020ko apirilean, etxean



Borda, azken lana eskuetan duela. I. ELUSTONDO

**"ZIURGABETASUNA PRESENTE DAGO
HASIERATIK, ETA LIBURU GUZTIAN
MANTENTZEN DA HARI BEZALA"**

**"BESTE GENEROETAN OIHARTZUN
HANDIAGOA LORTZEN DA, BAINA
POESIA EZ DA BIGARREN MAILAKOA"**

**"EZ NUKE NAHI HURRENGO LIBURUA
IDATZI BITARTEAN BESTE HAMAHIRU
URTE PASATZERIK"**

geundenean, zera galdetzen nuen: "Nola iritsi gara egoera honetara derrepente?". Baina poemetan asko dago jolasetik. Fikzio dezente sartu dut liburuan; ez dira denak niri gertatutako gauzak, ezta gutxiago ere. Ezegonkortasun egoera hori nolabait poemetara ekartzea bilatu dut, eta nik bizi edo sentitzen dudana baino interesgarriago egin zait hasierako zain horri heldu eta haren inguruan egon daitezkeen kontuak arakatzea, ikertzea, fikzio asko sartuta. Ni ez naiz etsita dagoen pertsona bat, baizik eta alderantziz. Etsipen horri buelta eman nahian, jolasean bezala aritu naiz, guzti honetatik poema polit batzuk atera nahian.

Zer momentutan idatzitako poemak dira liburuan jaso dituzunak?

Kuriosoa da. Azken liburua idatzi nuela hamahiru urte izango dira. Harrezkero, ez dut asko idatzi. Ez zait gustatzen idaztea. Zera esan nahi dut: ondo sentitzen naizenean ez dut idazteko gogorik izaten, eta gaizki sentitutakoan ere ez. Horregatik, ez dut produkzio oso handia izan. Bizitzako beste fase batzuetan nenbilen, eta ez diot hari horri tira. Dena den, azken urtean poema gehiago egiten hasi nintzen, eta bilatu nuen tiratzeko hari bat. Eta behin hor sartu nintzenean, 2021eko udan harrapatu nuen aurrera segitzeko olatua. 2021ean dago idatzita poemen ehuneko handi bat, eta azken urteetan berreskuratutako poemaren batzuk ere badaude. Baina ez nuke esango azkeneko hamahiru urteetako poema bilduma denik, azken urteko lanak dira. Horregatik daude olerkiak lehen aipatu ditugun gai horietara lotuago.

Non idatzi ohi duzu?

Idatzi aurretik, buelta bat ematera irtetea eta makina martxan jartzea gustatzen zait. Etxera itzultzerako, ideiaren bat edo zeozer biltzen dut, eta gero, hori paperean jarri. Idazteaz aparte, lan egiten dut, eta beste hainbat kontu ere izaten ditut eguneroko martxan; beraz, kostatu egiten zait idazteko denbora hartzea. Hala ere, asteburuetan nahiz oporretan harrapatu dut puntu bat poemekin zentratzeko, eta hori aprobetxatu dut.

Zientziako elementuen presentzia nabaria da olerkietan. Zergatik baliatu dituzu elementu horiek?

Formazioz, ingeniaria naiz, eta aurreko poema liburuan –*Gulliverren lokarriak*– hasi nintzen terminologia zientifikoarekin jolasten. Beti gustatu izan zaizkit bi adarrak, bai zientziak eta



Liburuaren aurkezpen ekitaldia, Donostian. UTZITAKOA

bai letrak, baina momentu batean aukeratu beharra dago, eta zientzien bidea hautatu nuen nik. Dena den, ingeniari-tza ikasten hastean, sekula baino gehiago irakurtzen hasi nintzen, eta gero, idazten. Agian, falta hori sentitu nuen: zientzien adarra aukeratu nuenez, lantzen nituen ikasgai denak zientziari lotuta zeuden, eta nire barruan bete beharreko hutsune bat zegoen. Orduan, literaturan murgildu nintzen.

Literatuaren munduan, ordea, presente izan dut zientzia. Hain zuzen ere, bigarren liburua idazterakoan, zientzietatik barneratuta nituen kontzeptuekin jolasten hasi nintzen. Zientzietako kontzeptu horiek letretako

mundura eramanez al nitzakeen aztertzen hasi nintzen, poemetan zer eragin zuten probatzen. Gustatu egin zitzaidan emaitza, eta *Gulliverren lokarriak* liburuan dezente pisua izan zuen baliabide horrek. Azken lanean, bide hori agortuta ote zegoen zalantza neukan, baina poemak idatzi ahala, ikusten nuen ezetz, hau da, bazegoela oraindik ere poema polit batzuk ateratzeko aukera, eta beste zenbait eremutako terminoekin batera, zientziei lotutakoak ere lagungarriak zirela. Ohartu nintzen iturria bazegoela oraindik, eta horri tiraka jarraitu nuen.

Joaquin Beltrani eskainitako poema bat ere badago liburuan.

Liburuaren prozesuan murgilduta nengoenean, azken poemak jarraipenarekin eta intentsitate handiarekin idazten ari nintzela, banerabilen buruan desagertuen hezurak bilatu behar diren ideia; hildakoa ikusi behar hori, kontzeptu bezala. Uste dut justu une hartan esan zutela Joaquin Beltranen hezurren bilaketa lanak eten egingo zituztela. Gai hori oinarri hartuta, poema bat idatzi nuen, baina duda gelditu zitzaidan, egoera oso delikatuak baliatzen ari nintzelako poema baterako. Zentzu horretan, iruditzen zitzaidan aukerarik duinena olerkia hor azpian gelditu zenari eskaintzea zela. Momentu hartan beragatik sentitu nuena adierazteko modu bat da. "Ezin dituzue bilaketa lanak utzi, segitu beharra dago derrigorrez, ezin da esan 'bukatu da'. Ez baduzue bilatu lehenengoan, segi berriz ere bilatzen", pentsatu nuen. Orduan bai sentitu nuen etsipena, eta olerkia omenaldi txiki bat ere izan da.

Olerki gehienak etsipenaren hariak lotzen baditu ere, esperantzari bidea zabaltzen zaio liburuaren amaieran. Honako hau dio poema batek: "Bagoiaren kristaletatik irristatzen / irribarrekin trukatu bagoaz norabaitera / posible ote da arindura hau betirako gordetzea". Badago aldaketa bat bukaera aldera, ezta?

Bai, hasieran aipatu dugun etsipen hori badagoen arren, uste dut badagoela esperantza puntu bat ere. Batzuetan zaila ematen du, baina bilatu nahi da irteera bat. Beti pentsatu behar dugu bukaera hori iritsiko dela. Badira esperantza puntu hori gordetzeko poemetara ekartzen diren elementu batzuk.

Aurrez beste bi poema liburu argitaratutakoa zara: *Birika zatiak* eta *Gulliverren lokarriak*. Zertan da desberdina *Urtu aurretik*?

Denak nik idatzi baditut ere, garai ezberdinetan eginda daude, oso egoera pertsonal ezberdinetatik. *Gulliverret*n *lokarriak* idatzi nuenetik hamahiru urte pasatu dira, eta ordutik asko aldatu da nire bizitza: urte horietan guraso egin naiz –hiru seme-alaba dauzkat–; ordura arte ikaslea nintzen, eta orain hamabi urte daramatzat lan munduan sartuta... Nahi edo ez nahi, uste dut asko aldatu naizela. Zentzu horretan, poemei begira ere, uste dut aldaketa bat egongo dela. Badaude hari komunak, zientziako terminologiaren erabilera edo estilo pertsonala, esaterako. Baina ahots hori ere moldatu edo aldatuko zen denboraren eraginez.

Zergatik Urtu aurretik?

Klima aldaketarena da ezegonkortasun egoera honen adibide handienetako bat: poloak urtzen ari dira, glaziarrek ere bai... Hortik tiraka sortutako izenburua da. Ematen du mundua aldatzera doala, pikutara doala, baina dena popatik hartzera joan baino lehenago, dagoena dago. Urtu aurretik zer topatzen dudana, zer ikusi dudana; hori jasotzen du izenburuak.

Jotakie musika taldearen historia jasotzen duen liburua izan ezik, poesia liburuak dira argitaratu dituzun guztiak. Zergatik atsegin duzu genero hori?

Ez dakit. Hasi poesiarekin egin nintzen, eta poesiarekin segitu nuen. Sortzerakoan, ohitura handiagoa daukat poesiara jotzeko. Alde batetik, iruditzen zait beste edozein generok diziplina nahiz denbora gehiago eskatzen duela; nobela bat edo ipuinak idazteak, esaterako. Eta nik ez dut topatu izan diziplinarako indar hori, askoz ere solteago ibili izan naiz. Baina, bestetik, irakurtzeko momentuan ere, asko gustatzen zaidan generoa da poesia, eta gainera, esango nuke gero eta gehiago jotzen dudala poesia irakurtzera. Beraz, gustu kontua ere bada, ez da bakarrik denboraren ekonomiari lotutako aukeraketa. Mundu horretan eroso sentitzen naiz, poesiaren barne arauetan jolasteko gogoia dut. Agian, beste zenbait generok baino aukera handiagoa eskaintzen du poesiak jolaserako,

tranpak egiteko... Noski, beste generoak gutxietsi gabe. Badakit beste generoetan oihartzun handiagoa lortzen dela, baina ez dut uste bigarren mailako genero bat denik poesia. Ni gehien betetzen nauenetakoa da.

Marrazu ere egiten duzu, ezta?

Bai, gustatzen zait marraztea. Ez da beti praktikatu izan dudana jarduera bat, azken urteetan deskubritutako zerbaite da. Gure etxean asko margotu izan da: osabak, anaiak, izebak... Eta nik ere eduki nuen halako gogo bat probatzeko, umeekin-eta jolasten nuen bitartean. Azken urteetako deskubrimendu pertsonala izan da: gustatzen zait, nahiz eta orain arte aritu izan naizen diziplinekin ez daukan zerikusirik.

Margotzeak esperimentatzeko askatasuna ematen du. Momentuz, gustura nabil margotzen, eta uste dut gelditzeko etorri dela afizio hori.

Duela hamahiru urte kaleratu zenuen azken liburua.

Beste hamahiru igaroko al dira hurrengoak etorri aurretik?

Ez nuke nahi. Hori nahiko garbi daukat. Hamahiru urte pasatu dira, baina esango nuke egoerak eraginda pasatu direla: hau da, umeak hazten ibili naiz, eta horrek lotura handia dakar. Gauza batzuei eman diet lehentasuna, eta horrek ez dit lagundu literatur sorkuntzan. Nahi dut pentsatu kaleratu dudana azken lana badela mugarri bat nire ibilbidean, hemendik aurrera denbora gehiago bilatuko dudalako literaturari edo beste kontu batzuei eskaintzeko. Ez nuke nahi beste hamahiru urte pasatzerik.

Urtu aurretik liburuaren zenbait aurkezpen egingo dituzu datozen hilabeetan. Noiz eta non izango dira saioak?

Bai, Felipe Murilloren laguntzarekin, aurkezpen errezitaldi batzuk egingo ditut. Hotsak eta hitzak nahastuz, liburuko zenbait poema irakurriko ditugu saioetan. Honako hauek dira hitzorduak: apirilaren 21ean, Azpeitian izango gara, Dinamoan; maiatzaren 5ean, Bilboko Biran; maiatzaren 6an, Iruñeko Zaldikon; eta maiatzaren 19an, Zarauzko Garoa liburu dendan. ■



Ekiteko beste modu bat

Ekindar kooperatiba jarri dute martxan, eta lehen proiektuari ekitear dira: eguzki plaken parke bat eraikiko dute Urrestillan. Kooperatibako bazkideak kanpaina hasi dute, eta ehunka herritar ari dira egitasmoarekin bat egiten. Energia komunitatea berritzailea izango da, baita hori kudeatzeko sortu duten tresna ere.

Testua: **Julene Frantzesena**. Argazkiak: **Julene Frantzesena eta Mailo Oiarzabal**.

Badago argindarra sortzeko eta kontsumitzeko beste modu bat", dio Ekindar kooperatibaren aurkezpen bideoaren *off*ahotsak. Eta hain zuzen ere, helburu horrekin sortu dute proiektua, egungo energia sistemaren "alternatiba" eraikitze asmoz. Azpeitiko Udalak Energiaren Euskal Erakundearekin eta Mondragon Korporazioko Krean taldearekin lankidetzan eratu du energiaren autokontsumorako kooperatiba, eta hainbat dira bazkide laguntzaileak, hala nola Azoka Plazan kokatuta dagoen Elikagunea saltokia, Bertan merkatarik elkartea, herriko ikastetxeak nahiz Kulturaz kooperatiba. Gainera, aurreikuspenen arabera, 462 kontsumitzailek edo familiak izango dute kooperatibako bazkide egiteko aukera. Dena den, kontsumoaren arabera, gehiago eta gutxiago izan daitezke horiek. Dagoeneko martxan da bazkidetza kanpaina, eta erantzuna "ezin hobe" izan dela adierazi du udalak. Izan ere, ehunka herritarrek parte hartu dute erakundeak informazioa emateko antolatutako batzarretan, eta ehunka lagunak egin dute dagoeneko kooperatibako bazkide egiteko urratsa.

Ekindarrek martxan jarriko duen lehen proiektua eguzki plakena izango da. Urrestillan eraikiko dute parkea, Altunako bidegurutzetik Nuarberako errepidearen azpialdean kokatutako hektarea bateko lursailean. 25 urtez argindarra sortzeko beharrezko instalazioa eraikiko dute han; 1,256 MWp sortuko dituzte eremu horretan. Proiektuaren sustatzaileek azaldu dutenez, kanpoko energia iturriekiko "menpekotasuna gutxitzeko" balioko du egitasmoak, eta ingurumenarentzat "egokiena" den energia berdea sortuko du. Hain zuzen ere, eguzki plaken bidez sortutako energia argindarraren sare nagusira lotuko dute, eta aurreikuspenen arabera, abendutik aurrera iritsiko da energia hori herritarren etxeetara. Gainera, plakez gain, eremu horretan bertan erlategia eta haztegia ere kokatuko dituzte, baina aurrerago emango dituzte horien gaineko azalpenak.

Oraindik ere badago kooperatibako bazkide egiteko aukera. Zehazki, Azpeitian errolatuta dauden herritar guztiak egin daitezke bazkide, baita norbere konturako langileak, enpresa txikiak edo elkartek ere, egoitza soziala edo lantokia Azpeitian kokatuta baldin badute. Hori bai, bazkide bakoitzaren gehienezko urteko kontsumoak ezingo ditu 12.000 kW gainditu. Aurrez izena eman zuten herritarrek izango dute bazkide egiteko lehentasuna, baina halakorik egin ez duten herritarrek ere badute horretarako aukera. Goiko kaleko bigarren zenbakian zabaldu duten bulegoan egin daitezke izapideak, baita norbere energia kontsumoaren kalkulua ere. Astelehenetik ostiralera izango da zabalik bulegoa, 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. Halaber, *Ekindar*:eus webgunean ere gauzatu daiteke bazkide egiteko prozesua.



Urrestillan eraikiko dute eguzki plaken parkea, hektarea bateko eremuan.

Bazkidetza kanpaina maiatzean bukatuko dute, eta ekaina baliatuko dute bazkideen zerrenda errepasatzeko nahiz erreserban gelditzen diren herritarrei erantzuna emateko. Ondoren, ekainean edo uztaillean, egingo dute Ekindarren batzar nagusia, eta han, besteak beste, kooperatibako Errektore Kontseilua aukeratuko dute. Proiektu berrien inguruko lanketari ere ekingo dio kooperatibak hurrengo hilabeteetan.

Zero kilometro filosofia

"Gaur egungo gizarte eredua eta haren funtzionatzeko modua ez dira jasangarriak". Gaiaren larritasunaz garbi hitz egin du Josu Labaka Azpeitiko alkateordeak. Hark azaldu duenez, gauzak egiteko moduak "aldatu" beharra dago. "Garbi dago energia berriztagarrien aldeko apustua egin behar dela. Bestalde, ikustekoa da gaur egun zenbat ari garen ordaintzen argindarra. Oinarri-oinarrizko behar bat pribatizatuta dago; gutxi batzuek diru asko irabazteko erabiltzen dute argindarra, eta herritarrok urrearen prezioan ari gara ordaintzen oinarritzko behar bat. Energia demokratizatzeko beharra dago".

Energiaren demokratizazioaz haratago, beste bi oinarri ere baditu, baina, Ekindarrek. Hala azaldu du Labakak.

"Sentsibilizazioan eragin eta energia trantsizioa egia bihurtu nahi dugu. Egungo errelitateari erantzuteko bide berri bat proposatzen da, beraz". Mundua hobetzeko bidean, haren ustez, Azpeitiak ere "pauso handiak" ditu emateko, eta helburu horren

barruan kokatu du proiektua. "Denbora da Azpeitiko Udalak ingurumenaren gaia lehen lerroan jarri zuela; izan ere, udalak eredu izan behar du, eta erakundea ari da horretarako urratsak egiten –kaleko argiteria LED sistemara aldatu da, igerilekuan sistema geotermikoa ezarri da, auto elektrikoen kargagailuak jarri dira, eraikin publikoetan eguzki plakak muntatu dira...-. Udaletik haratago, baina, zer egingo dugu?", galdetu du alkateordeak. Galdera horri erantzunez, bi adibide eman ditu: "Ikastetxeak 50/50 programa ari dira garatzen, sentsibilizazioa eta ahalduntzea lantzeko; bestalde, Sustapen Ekonomikoko dirulaguntzen barruan bada energia inbertsioak laguntzeko lerro bat, eta azken hilabeteetan, gero eta enpresa gehiago ari dira halako proiektuak aurkezten".

Ekindarren proiektuari garrantzirik kendu gabe, tresnan jarri du arreta alkateordeak. Izan ere, Urrestillan kokatuko duten eguzki plaken proiektuaz haratago, kooperatiba sortzeak duen garrantzia azpimarratu du hark. "Antolaketa eredua inportantea da, herritarren kooperatiba izango delako Ekindar". Gainera, oinarrian jarri dituzten helburuak sustatzeko eta etorkizunean etor daitezkeen proiektuak garatzeko tresna "eraginkorra" izango dela uste du. Bide horretan lehena izango da eguzki plakena, baina proiektu hori martxan jartzeaz gain, egitasmo berriak ere aztertuko ditu kooperatibak.

Euskal Herriko beste herri batzuetan ere ari dira energiaren bueltako herritarren komunitateak sortzen, baina Ekiola sozietatetik jaio den eta errealitatea den proiektu "aitzindaria" Azpeitikoa izango da. "Proiektua anbiziotsua da, eredu eta egiteko modua berriak direlako; herritarren, erakunde publikoen eta eragile sozialen elkarlanetik sortu da herritarren eskura dagoen, herritarren onurarako egin den eta herritarren ikuspegia duen proiektua".

Abiapuntua ere "oso indartsua" dela esan du Labakak, eta herritarren erantzunarekin "oso-oso eskertuta" daudela ere adierazi du. "Ikusten da herritarrek badutela gauzak beste modu batean egiteko gogoia eta nahia. Bidea ezin izaten da bakarrik egin, indarrak batu behar izaten dira aurrera egiteko; izan ere, bide berri bat irekitzea ez da gauza sinplea izaten. Gainera, askotan bide bakarra dagoela erakusten digute, eta besterik ez dagoela sinestera iristen gara, baina gauzak beste modu batean egitea posible da. Proiektu honek, hain zuzen ere, horixe erakusten du, eta horrek beste hainbat arlotara heda daitekeen balio izugarria dauka".

Haren aburuz, gauzak beste modu batera egitearen parte izateak ere badu balioa, eta ez nolanahikoa. "Garrantzitsua da zero kilometro energia kontsumitzen duzula jakitea, adibidez. Uzten ari zaren aztarna hori, txikia izanagatik, garrantzitsua dela jakitea inportantea da. Zerbaitek merezi duen edo ez ekonomiaren ikuspegi soiletik esaten da askotan, baina argi genuen proiektuak ekonomikoki bideragarriaz gain, erakargarria izan behar zuela. Proiektu soziala da, herritarrekin eta herritarren beharrei erantzuteko sortua".

**"PROIEKTU
ANBIZIOTSUA DA,
EREDUA ETA EGITEKO
MODUA BERRIAK
DIRELAKO"**

**"NABARI DA
HERRITARREK
GAUZAK BESTE
MODU BATEAN EGIN
NAHI DITUZTELA"**

**JOSU LABAKA
AZPEITIKO ALKATEORDEA**

INBERTSIOA ETA DIRULAGUNTZAK

Bazkideek egindako diru ekarpenak tarteko, Ekindarrek 1,3 milioi euro izango ditu eguzki plakak erosteko nahiz horiek jarriko dituzten lursailean lanak egiteko. Etxe bakoitzeko bizikide kopuruaren eta haien argindar kontsumoaren arabera egin dute inbertsioaren batez besteko kalkuluaren aurreikuspena: lau bizikideko etxean 2.328 euroko inbertsioa; hiru lagunekoa, 1.927 eurokoa; bi lagunekoa, 1.606 eurokoa; eta bizikide bakarrek, 1.204 eurokoa. Dena den, izena ematen duten herritar guztiei beren kalkulu pertsonalizatua egingo diete. Inbertsioari, baina, udalaren dirulaguntza nahiz Gipuzkoako Ogasunak errenta aitortpenean aplikatuko duen %15eko kenkaria gehitu behar zaizkio. Udalak Ekindarren bazkideentzako dirulaguntza lerro bat kaleratu du, 250.000 eurokoa. Bazkide egiten diren herritarrek 500 euroko laguntza jasoko dute, eta egoera ekonomiko okerrean daudenek 1.000 eurora artekoa.

Bestalde, Laboral Kutxarekin hitzarmena ixtekotan da Ekindar; bazkideek kreditu pertsonala eskatu ahal izango dute, kooperatibak bermea emanda.



Ekindarren proiektuak energiaren mende-kotasunari ere aterabidea emango diola uste du Labakak. Izan ere, Urrestillako eguzki plaketan sortzen den energiaren prezioa berbera izango da proiektua martxan jarri eta hurrengo 25 urteetan. "Merkatuarekiko mende-kotasun izugarria dugu Euskal Herrian, eta ziurgabetasun garaiotan, argindarraren prezio justua eskainiko du Ekindarrek". Energia burujabetzara bidean urrats bat gehiago izango da, beraz, Ekindar, baina zinegotziak argi du aferak bi buru dituela: "Garrantzitsua da energia sortzea, baina baita kontsumitzen dugun energia aurrezte ere, eta horretan ere sakondu beharko dugu".

Sustatzaileak hainbat

"Herriko eragile izanda, Bertanek ezin zuen hutsik egin gisa honetako egitasmo batean". Hala azaldu du Xabier Aldalur (Azpeitia, 1990) Azpeitiko merkatariekin elkarteko teknikariak. Ekindarren hastapenetatik izan da Bertan Ekindarreko kide, elkartek "beharrezkotzat" jo zuelako proiektua eta proiektuaren barruan "ahotsa" izan nahi zuelako.

Eragile sustatzaileek Azpeitiko Udalak aurrez emandako pausoak berresten eta aurrera begira egin beharreko urratsak definitzen lagundu dutela azaldu du Aldalurrek. "Halako dimentsioak dituen egitasmo batek eskatzen du herritarrekin kontrastea egiteko beharra; gure kasuan, merkatariekin egin dugu hori". Halaber, proiektua ezagutarazten ere lagundu dutela esan du teknikariak. "Merkatariei informazioa helarazi diegu, eta behar zutenei, aurreinskripzioa egiten lagundu ere bai. Gainera, merkatariei zuzendutako informazio jardunaldi bat ere egin zen, udalaren eta Kreanen laguntzarekin".

Bertakotasunaren ikuspegitik, Ekindar proiektua Bertanek defendatzen dituen ideiekin "bat" datorrela azaldu du Aldalurrek. "Gurea, gertukoa, kontsumitzea da egitasmoaren oinarria". Gainera, ekonomiaren ikuspegitik, egungo merkatuaren "ziurgabetasunari" aurre egiteko eta "ondo bidean" epe ertainera kostuetan aurrezteko bide eman dezake proiektuan parte hartzeak. "Ondorioz,



merkataritza sektoreak bizi duen egoera medio, saltoki txikien errentagarritasunean lagungarri izan daiteke Ekindar".

Merkatarientzat proiektua erakargarri "energia burujabetzak berarekin duen ziurtasunak" egiten duela esan du hark. "Egun, merkaturako energiaren prezio aldaketek aurreikusi gabeko kostu igoerak eragin dituzte, ezustean kostu gehigarriak sortuz. Horrek negozio askoren jarduna baldintzatzen du, eta energia komunitate bat sortzeak nolabaiteko egonkortasuna eman diezaioke dendariaren energia kontsumoari".

Azoka Plazako Elikagunea kudeatzen duen Artxara kooperatiba txikia da Ekindar proiektuko beste eragile sustatzaileetako bat, eta hango bazkidea da Ioritz Aizpuru (Azpeitia, 1983). Elikadura burujabetza da Artxarako kideen jardunaren oinarria; "landa eremu bizi bat" dute xede, eta "ingurumenarekin konprometituta" daude. Ekindar energia berriztagarriei lotutako proiektura batzeko badela "nahikoa arrazoi" uste du, kooperatiba horrek herritarren komunitatea sortzeaz gain, energia burujabetza duelako oinarri. "Gainera, erabiliko diren lurri erabilera hirukoitza emango zaie, eguzki plakez gain, eztiaren eta bertako landareen ekoizpena ere egongo direlako bertan".

Orain arte egindako pauso guztiak eragile sustatzaileen artean adostuta gauzatu dituztela eta ekarpenak egiteko aukera ere izan dutela esan du hark. "Guk, batez ere, landa lurri eman diezazkiekegun askotariko erabileren inguruko ekarpenak egin ditugu". Bestalde, Ekindarren gaineko informazioa beren komunitatean zabaltzeaz ere arduratu direla jakinarazi du.

Ekindarrek Artxararen oinarriekin "bat" egiten duela uste du Aizpuru, eta proiektuaren parte izatea "garrantzitsutzat" jo du. Izan ere, komunitatea sendotzeaz gain, elkarlanerako ate berriak ireki daitezkeela azaldu du. Herrian komunitateak sortzeak duen garrantzia ere egin du azpimarra hark, herria "bizirik eta antolatuta" dagoen seinale delako hori. "Energia burujabetza oinarri duen proiektua da, eta gure helburuekin bete-betean egiten du bat".

Ehunka herritar izan ziren martxoaren 16an Soreasu antzokian egindako Ekindarren abiapuntu batzarrean.

Herritar bat Ekindarren bulegoan, hura ireki zuten egunean.

Udaleko, Energiaren Euskal Erakundeko nahiz Kreen kooperatibako kideak Ekindarren bulegoaren atarian.

"BERTANEN IDEIEKIN BAT DATOR PROIEKTUA; GUREA, GERTUKOA, KONTSUMITZEA DA OINARRIA"

XABIER ALDALUR
BERTAN ELKARTEKO TEKNIKARIA

"LANDA LURREI EMAN DIEZAZKIEKEGUN ERABILEREN INGURUKO EKARPENAK EGIN DITU ELIKAGUNEAK"

IORITZ AIZPURU
ARTXARA KOOPERATIBAKO KIDEA


USOA ETXEBERRIA

"Kooperatibetan sinesten dudalako eta energiaren arloan transparentzia falta eta zikinkeria asko dagoelako egingo naiz bazkide. Mundua hankaz gora dago, eta bakoitzak ahal duen konpromisoa hartuz, aldatzeko garaia da. Aldaketa hori gauzatzeko erantzun ezin hobe bat iruditzen zait Ekindar. Herriko ekonomia sustatzeko eta etorkizunean mundu hobe bat izateko, honako hauek dira faktoreak: elkarlana, kooperazioa, jasangarritasuna, herria eta gardentasuna. Ekindarrek onura horiek guztiak dituelakoan nago".


IKER AMENABAR

"Argindar enpresa handiak adarra jotzen ari zaizkigun sentipena daukat, eta beraz, garrantzitsua iruditzen zait herrian energia burujabetzan eragingo duen kooperatiba bat eratzea. Bestalde, Ekindarrek energiaren demokratizazioa ekarriko duela uste dut, norbere poltsikoan ere sumatuko dugulako aldea. Arlo ekonomikoa alde batera utzita, urrats garrantzitsua da halako proiektu bat martxan jartzea, denon esku dagoelako gauzak eta egiteko moduak aldatzea".


AITOR EPELDE

"Proiektu kooperatiboa delako batu naiz Ekindarrera, energia iturri berriztagarria eta garbia delako, baita ekonomikoki interesgarria izan daitekeelako ere. Ingurumena zaintzeko kontzientzia sortzeko balio dezake proiektuak; ingurumena zaintzea gure burua zaintzea da. Energia burujabetzara bidean urrats bat da Ekindar, nahiz eta urrats txikia izan. Egun, baliabide naturalak gehiegi ustiatzen ditugu, eta kontsumoa gutxitzea aurrerapauso handia litzateke".


ARANTXA ALDALUR

"Proiektua asko gustatu zitzaidan, interesgarria iruditzen zaidalako energia burujabetza izatea. Oso garbi eta garden azaldu dute zein den proiektuaren helburua, eta hori eskertzekoa da. Gaur egungo egoera ikusita, Ekindar bide egokia dela uste dut; energia krisiari, prezioen garestitzeari, enpresa elektriko handien funtzionamenduari nahiz ingurumenari erreparatuta erabaki dut proiektura batzea. Gero eta garrantzi handiagoa eman behar diogu zero kilometro kontsumoari".


MARIA OLAIZOLA

"Hainbat arrazoigatik egin naiz Ekindarreko bazkide; batetik, energia berriztagarriek duten garrantziagatik, eta bestetik, ekonomikoki eskaintza interesgarria delako. Energia herrian sortuko da, eta horrela, mendekotasun gutxiago izango dugu. Gainera, kooperatiba izanik, kontsumitzaileok izango dugu erabakitzeko eskumena. Urrats txikia bada ere, aurrerapausoa da Ekindar, eta etorkizunean proiektu gehiago garatzen ere lagundu dezake".


ANDER KEREJETA

"Proiektu oso interesgarria iruditzen zait, herrian sortutako energia berdea kontsumitzeko aukera emango duelako. Izan duen harrera ikusi besterik ez dago; izan ere, guztioi interesatzen zaigu energia garbia, zero kilometrokoa, kontsumitzea. Horrez gain, onura ekonomikoa ere aipatuko nuke; kontsumituko dugun energia merkeagoa izango delako. Urrats handia da Ekindar sortzea, energia baliabideak herritarrok kudeatzea oso interesgarria iruditzen zaidalako". ■■■■



NON DAGO UZTARRIA?



Lehiaketan parte hartzeko aurkitu aldizkarian Uztarrria pertsonaia eta bidali erantzuna lehiaketakuztarria@gmail.com e-postara apirilaren 22a baino lehen. Bazkidearen izena eta telefono zenbakia zehaztu behar dira.

Saria: Kutxillo urdaitegiaren produktu sorta.

Martxoko Uztarrria aldizkarian Uztarrria pertsonaia non ezkutatuta zegoen asmatu behar zen: 37. orrialdean zegoen ezkutatuta, eta Leire Urdapilleta bazkidea izan da irabazlea.



URDAIAZPIKO,
HESTEBETEAk eta GAZTAK

Etxeko berezitasuna:
EZKUR URDAIAZPIKO IBERIKOA



Eñaut: 656 79 14 19
Oier: 618 24 01 73
kutxillo@gmail.com
Damazo Azkue 6
AZPEITIA

"Asmatuko dut ala ez, baina nire erabakien jabe naiz"

MAITE EPELDE LAN IKUSKARIA

"Ez da erraza esplikatzen" lan ikuskariaren lana, horrela dio Maite Epeldek, eta ezezagutza horrek "mito" faltsuak eraikitzen lagundu du. Berak, ordea, ondo baino hobeto ezagutzen ditu bere ogibidearen xehetasunak. Ia hogeitaz hamar urte daramatza lan horretan, eta gustura aritzen da, gainera.

Testua eta argazkiak: **Mailo Oiarzabal**. Marrazkia: **Olatz Alkorta**.

Bakarren bat egongo da, agian, baina nekez, oso nekez, topatuko dugu "handitan, lan ikuskaria izan nahi dut" dioen umerik. Maite Epeldek ere (Azpeitia, 1974) ez zuen inoiz halakorik esan, baina lan ikuskaria da, hemeretzi urte daramatza lan hori egiten, eta ez dauka lanbidez aldatzeko inolako asmorik. "Askotan, bizitzak eramaten zaitu batera edo bestera, eta horrelako zerbait gertatu zitzaidan niri", dio. Unibertsitate ikasketak aukeratzeko garaia iritsi zitzaionean, ez zuen "batere argi" zer hautatu, "jende gehienak bezala". Historia gustatzen zitzaion, baina lan mundua jorratzen hasteko beste aukeraren bat egokiagoa izan zitekeela pentsatuta, Zuzenbide Ekonomikoa ikasi zuen.

Ikasketa horiek bukatuta, doktoretza ikastaroari ekin zion Epeldek, eta hango ikaskide batek bultzatuta hartu zuen lan ikuskari bihurtuko zuen bidea. Funtzionarioak dira lan ikuskariak, baina ez ezagunenak, ezta ugarienak ere. "Normalean, ez dut esaten zer lan egiten dudana. Lan berezia da. Galdetzen didatenean, ez da erraza esplikatzen", dio azpeitiarrak, baina honela

laburtu du bere lana zertan datzan:

"Funtzionarioak gara, administrazioaren langileak, eta gure helburua da enpresetan lan, Gizarte Segurantzaren, prebentzio eta immigrazio araudiak betetzen direla kontrolatzea eta zaintzea". 2011-2012ra arte, Espainiako Gobernuaren Lan Ministerioaren mendeko funtzionarioak ziren Araba, Bizkai eta Gipuzkoako lan ikuskariak. Harrezkero, Eusko Jaurlaritzaren mendeko funtzionarioak dira, "baina lan ikuskaritzan funtzionario plaza eskuratzeko oposizioak estatu mailakoa izaten jarraitzen du", zehaztu du Epeldek. "Eusko Jaurlaritzak ez du eskumenik bere aldetik ikuskari plazak eskaintzeko edo deialdiak egiteko; eska ditzake behar dituela iruditzen zaizkion postuak, baina erabakia ez dago bere esku".

Mitoak eta bermea

Ofizioz – "ez da oso ohikoa" –, salaketa bat egon delako edo administrazioak bultzatutako kanpaina baten barruan jar daitezke martxan lan ikuskarien esku hartzeak, eta lan istripuen ondorioz ere bai. "Behargin bat laneko istripu batean hiltzen denean, guardian dagoen lan

Maite





ikuskaria istripua gertatu den tokira joaten da, ikustera, eta hortik abiatzen da ikerketa. Heriotzarik gabeko lan istripuei dagokienez, istripu larri edo oso larri gisa kalifikatzen direnetan lan ikuskaritzak ofizioz jarduten du, kasu horietan ez da beharrezkoa salaketa bat egotea, guztiak ikertzen dira; istripu arinak, aldiz, salaketa bat dagoenean edo ikuskaritza zerbitzuaren buruek hala erabakitzen dutenean soilik ikertzen ditu lan ikuskaritzak", azaldu du azpeitiarrak.

Lan ikuskariek enpresen arau haustea zigortzeko ahalmena dute, isunak ezarri; edo

irregulartasunak zuzentzeko eskatzekoa, errekerimenduen bidez. Beren egitekoak, finean, "langileen eskubideak bermatzen" dituela irizten dio Epeldek, enpresetan zigorren itzala haizatuz, besterik ezean: "Zergatik hasi ginen autoan segurtasun uhala erabiltzen? Isunak jartzen hasi zirelako. Ba horixe. Araudia bete egiten da, legea bete ezean atzetik zartatekoa emango dizun norbait edo zerbait dagoela jakiteak eragiten duen beldur horregatik bada ere. Eta horrela, azkenean, langileen eskubideak bermatzen dira". Bera lanean hasi zeneko egoerarekin alderatuta, enpresetan prebentzioaren arloan gauzak asko aldatu direla dio, hobera, baina uste du gauzak are hobeto egiteko aukera legokeela baliabide gehiago izanez gero. Lan ikuskari gehiago behar direla uste du azpeitiarrak: "Askoz gehiago izango bagina, eta egunero kalean ibiltzeko modua izango bagenu, bisitak eta bisitak egiten..."

Jende gehienak lan ikuskarien egitekoa ez duela ezagutzen ere uste du Epeldek, eta beren jardueraren gainean sortutako pare bat "mito" gezurtatu ditu. "Badakit oso zabaldua dagoela lan ikuskariok interes batzuen edo besteen arabera jokatzeko dugunaren ustea, baina hori ez da horrela. Inoiz ez dut deirik jaso, ez handik, ez hemendik eta inondik ere ez. Asmatuko dut ala ez, baina nire erabakien jabe naiz; eta huts eginez gero, okerra zuzenduko dut", dio, eta salaketa bat jaso dutelako enpresa batera joan behar dutenean aurrez ez dutela abisatzen gaineratu du. "Jendeak Osalan eta gu nahastu egiten gaituela uste dut -dio-. Guk Osalanekin lan egiten dugu, adibidez, istripuak gertatzen direnean; haiek txosten

Maite Epelde

- **Adina:** 47 urte.
- **Ikasketak:** Zuzenbide Ekonomikoa.
- **Lanbidea:** Lan ikuskaria.
- **Lan ikuskaria ez banintz...** Ez nuke beste lanik aukeratuko, egia esan. Ondo nago, eta ez dut lanbidez aldatzeko asmorik.
- **Lanetik ateratzean gogoko dut...** Oñatzera joaten naiz astean hiruzpalautan. Eguraldiaren arabera, bazkalondoan igerilekura ere joaten naiz batzuetan. Irratia asko entzuten dut, eta musika ere bai. Spotify aurkikuntza bat izan da niretzat.



teknikoak egiten dituzte eta guri bidaltzen dizkigute, baina Osalaneko langileak teknikariak dira, ezin dute ez isunik jarri, ez errekerimendurik egin, eta haiek bai abisatu egiten dutela enpresetara joan aurretik".

Gustuko lana

Oposizioa gainditu zuenean, Bizkaiko lan ikuskaritzan hasi zen lanean Epelde, eta han jarraitzen du. "Izan dut hona [Gipuzkoara] etortzeko aukera, baina ez dut nahi izan. Batetik, distantzia mantentzea nahiago dut; eta bestetik, oso giro ona daukagu lankideon artean". Ikuskari bakoitzak zonalde jakin baten ardura izaten du, eta Epelderi Bizkaiko "zonalde euskaldunena" dagokio: "Ondarroa, Lekeitio, Mallabia, Markina...". Euskalduna izateak badu zerikusirik horretan, azpeitiarrak azaldu duenez: "Hemen lan ikuskari oposizioak ateratzeko tradizio handirik ez

da egon izan, eta beraz, lan ikuskari gehienak kanpokoak izaten dira".

Bilbon dago Bizkaiko lan ikuskaritzaren egoitza, baina Epeldek etxetik egiten du lan egun gehienetan, eta "ondo" moldatzen da horrela. "Alde horretatik, pandemiak guri ez zigun buruhauste handirik eragin, laneko sistema lehendik prestatuta genuen eta horrela lan egiten ohituta geunden". Lankideekin bulegoan askotan ez egon arren, laneko giroa da "bere osotasunean asko gustatzen" zaion lanbidetik gehien nabarmentzen duena. "Beti gaude bata besteari laguntzeko pronto. Eta horrek urrea balio du. Horrez gain, lan dinamikoa da gurea, norberaren esku dago lana nola antolatu... Umeak daukazunean, asko balio du horrek", gaineratu du. Bizitzak eraman zuen daukan lanbidea izatera, horren bila joan gabe, eta orain ez du bere burua beste lan batean irudikatzen. ■

BETI ZUREKIN

Bertako llogailuak-ekin, urteko 365 egunetan 24 orduz izango duzu gure zerbitzua. Solbuespenik gabe.

GIPUZKOA

943 903 450

bertako
llogailuak-ekin

www.bertako.eus

KONZILIOA
JANAKARI

ZIBIKO JAISENGO
ERAKUNTZA
BILKATZETIA

BARRUTIA
TOKIA



HALI DA
LIRTINGA!

SUDOKUAK

Beheko sudoku hauek gainera irudiko laguntza ibilerarekin dute zerikusia. Barraskiloea ASTIRO doa beti, eta erbia, berriz, ARIN. Osa itzazu bi sudokuak, hutsik dauden laukietan behar diren hizkiak idatziz (seiko sudokuak A, S, T, I, R eta O, eta laukoak A, R, I eta N).

Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lehen, zutabe eta area bakoitzeko.



BILATU

Animalia hauetatik bat ez dago mundu-mapan. Zein?



HANDITIK TXIKIRA

Ordena itzazu hartz hauek handitik txikira, 1etik 9rako zenbakiak erabiliz (handienari 1 eman eta txikienari 9).



NOLA
SORTZEN DIRA
UMEAK?

Nola sortzen dira erantzunik gehienak? GALDETUZ, jakina. Hitz ederri, sudoku handi hau osatzeko. Zortzi hizki dituzu hutsuneak betetzeko (G, A, L, D, E, T, U eta Z).





Hara!


Gaixoak pinguinoak!
Lasten beren bizimodua
egokitu beharke dute,
Lurraren tenperatura
igotzen ari baita. Bero,
baina hemen ez dirudi
horren gaizki daudenik
ere, ezta? Aurki itzazu
bi irudien artean dauden
aldeak. 16 dira guztira.



DOMINOAN



Bete itzazu
lauki zuriak
domino-zati
honek
zentzua
izan dezan.



Eguzkia · Lurra · Ilargia · meteoritoa · planeta · izarra

Soluzioak ikusteko:
www.plazanbazan.eus/

ikastola^k

hezkuntza eraldatzen



azpeitiko
ikastola

ikasberri koop.e.

Goaz, gabilitza eta gatoz



OIER ETXEBERRIA

Loteria tokatuko balitzaigu egingo genituzkeen gauzen artean, fantasia berbera gailentzen da gehienetan. Bidaiatzea. Musika gustatzen ote zaigun galdetutakoan beti baietz erantzuten den bezala, denok dugu geure burua abenturazaleztat.

Batzuei gurpil gainean esnatu eta furgonetaren leihotik kresalaren usaina sartzeak ematen die; beste batzuei buffeteko laranja zukua edateak, egunero izara garbiak aldatuko dizkietela jakinda. Bakoitzak bere erara bizi du askatasuna. Beharbada, bidaiatzea dela uste izan arren, oporretan egotea da benetan gustatzen zaiguna.

Hala ere, turistona espezie eskasa da, doan tokira doala, itxurazko lagun interesatu asko eta benetako etsai ugari eragiten ditu. Denoi leku polit eta ospetsu berberak bururatzen zaizkigu, horiek baitira inbidia eragiten dutenak. Gero, elkarren enbarazuan, masifikazioaz eta jendearen emanaz kexatuko gara. Nolakoa ote litzateke argazkirik gabeko ilunabar bat hondartzan? Zentzumenei jaramon gehiago egingo genieke, oroitzapenak ezin balira megabytetan gorde.

Bertakoa axola zaigun plantak egiten ditugu une batez; tipikoa, autoktonoa xurgatu eta beste lore batera salto egiteko. Berdin dio Kathmandura espedizioan joan edo Eiffel dorrea ikusi,

jokamolde berbera du giza maletadunak. Horregatik, apopilo goazenean, ez genuke ahaztu behar *Kapital publikoari* ostutako hau: "Gu ez gauden lekuetan jendea dago, eta gu ez gauden lekuetan ere jendea bizi da".

Distantziak laburtu diren honetan, lehen agentzien zeregina zena orain nork bere gain hartzen du. Aditu bihurtu gara erreserbak egiten eta bileteak erosten. Ibiliak erakusten du, fidagarriena aurrez igarotako norbaiten iritzia dela, zein eraikin bisitatu eta nongo jatetxetara joan erabakitzeo. Ahal bada bost izar. Nola arkumeak hiltegian, hala igarotzen gara aireportuetako perfume eta likore labirintoetatik, eskanerretan barrena. Argi utziz ez daramagula azkazalak ebakitzeko guraizerik, zeinekin hegazkina bahitu genezakeen.

Bidaia bakoitza hiru aldiz gozatzen omen da. Lehendabizi, antolatzen eta prestatzen den bitartean, imajinatuz. Ondoren, bidaia gauzatzen den unean. Eta hirugarrengoz, argazkiei

**KANPORA GOAZENEAN
ERE, ETXKO GAUZA
BERDINTSUAK EGITEN
DITUGU, TXANKLETAK
JANTZITA**

begiratu eta gogoratzen dugunean.

Gutxi batzuen luxua izateaz haratago, bidaiariaren buruhausterik handiena ez da kostu ekonomikoa, ez eta laneko egutegiaren antolaketa ere. Oporretan doanaren zorigaitza etxera itzulitakoan maleta desegin behar izatea da.

Mundua bere buruaren bila dabilen motxiladunez beteta dago. Hemendik kanpo ohikoagoa da ikasketa ibilbidean zehar eten bat egin eta gazteak makutoarekin hor zehar abiatzea. Zenbat eta maleta arinagoa, orduan eta irakaspen sakonagoak ekarri ohi ditu bideak.

Gehienok, kanpora goazenean ere, etxeko gauza berdintsuak egiten ditugu, txankletak jantzita. Araua baieztatzen duen salbuespen gisa, Erasmuseko nire eskuko telefonoaren argazki galeriak salatzen du diskoteka baino eliza gehiago bisitatu izana. Eredu aniztasunaren adibide ezin hobea da 2Biziz proiektua. Bertan, bi gaztek, soinean daramatenarekin Afrika bizikletaz nola zeharkatzen duten kontatzen dute; tartean gobernuz kanpoko erakundeekin elkarlanean jardunda.

Zorionekoak gara mugitu gaitezkeelako, baita mugitu beharrik ez daukagulako ere. Partitzeko tenorea ospatu, bueltatzen garenean itzulera ospatzeko. ■

Esku hartze txikien balio handia

SANTI MERINO IRAURGI SASKIBALOI TALDEKO LAGUNTZAILEA

Ibartarra da jaiotzez Santi Merino, baina urteak daramatza Azpeitian bizitzen. Danborradan Loiolabide Zahar taldeko zuzendari aritzen da, eta Iraurgi saskibaloia taldean laguntzaile ere bai; hala eraiki du bizimodua herrian.

Testua: **Elena Margüello**. Argazkiak: **Utzitakoak**.

Festetan edota kirol munduan, baina aspalditik dabil Santi Merino (Ibarra, Gipuzkoa, 1967) herrian era batera edo bestera laguntzen. Ibarran jaio zen arren, urteak daramatza Azpeitian bizitzen. Hainbat ekintzatan parte hartzen du, eta herrian egin duen ibilbidea kontuan hartuta, Merino azpeitiar asko baino azpeitiarragoa dela esan daiteke.

Urteak daramatza Iraurgi saskibaloia taldean laguntzaile lanetan. Garagardo festan eta antzeko ekitaldietan "beti" lagundu izan du Merinok, eta semeak saskibaloian jokatzeari ekin zionean, are lan karga handiagoak hartzen hasi zen. Juan Jose Arakistain *Pino* duela hogeitau urte baino gehiagotik ezagutzen zuen danborrada kontuengatik; hura aspalditik ari zen saskibaloia klubean laguntzaile lanetan, eta harreman horren harira hasi zen gehiago laguntzen Merino ere: "Pinok laguntzera joan ezin zuenean, ni joaten nintzen; eta nik ezin nuenean, Pino joaten zen". Horrela hasi zen

Merino Iraurgiko lehenengo taldean laguntzaile lanetan, "oso modu naturalean".

2013-14 denboraldian lagundu zuen ibartarrak lehen aldiz ISBren gizonen lehenengo taldea, eta ordutik, goizez ez bada arratsalde, "ia egunero" joaten da kiroldegira bere aletxoan jartzera. "Pino ia egunero ikusten nuen", gogoratu du Merinok.

Aldageletan giro ona sortzeaz eta jokalariei ezer ez falta izateaz arduratzea da laguntzaileen eginbehar nagusia. Gazteek nahiz kanpotik etortzen diren jokalariek taldean "gustura" egon behar dutela uste du Merinok, eta taldea uzten dutenean ere sentipen "ona" izan behar dutela. "Batez ere, klubari laguntzea da egin behar izaten duguna".

Egunerokoan, entrenatzaileei laguntzen die ibartarrak: denborak eta estatistikak hartzen ditu, markagailuei adi egoten da, jokalarientzat izotz ontziak prestatzen ditu, kantxak muntatzen eta desmuntatzen ditu, eta entrenamendu zentroan daudenean, bisitak





egiten dizkie jokalariei, besteak beste. "Detaile txikiak dira, baina ingurukoek gustura hartzen dituzte", adierazi du Merinok. Haren arabera, gainerako taldeetan horrelako gauzak "gutxitan" egiten dituzte, eta klubari "nolabaiteko prestigioa" ematen diote ekintza horiek. "Aurrera jarraitzeko indarra ematen du horrek", aitortu du ISBko laguntzaileak.

Hain da beharrezkoa Merinoren lana Iraurgi saskibaloi taldearentzat, pasa den urtean boluntario onenaren saria aitortu zioten. Komunikabideen bitartez izan zuen horren berri, eta Ibon Guridi klubeko koordinatzaileari galdetu zion sariaz. Hark "merezitako saria" zela esan zion: "Klubak badaki zenbat lan egiten dugun laguntzaileok, eta nire buruaz harro sentitu nintzen saria eman zidatenean".

Herriko saskibaloi klubak talde asko ditu hainbat kategoriatan; horietako bi goi errendimendukoak, bata neskena eta bestea mutilena. Talde horiei guztiei laguntzeak "boluntario askoren lana" eskatzen duela azaldu du Merinok. "Laguntzaileen artean ni naiz denbora gehien daramana, eta, agian, gehien ezagutzen nautena; horregatik jaso nuen nik saria. Baina laguntzaile guztien lanagatik izango ez balitz, ezinezkoa litzateke ISB gaur

egun dagoen lekuan egotea". Klubeko zuzendaritzak ere beren lana "asko eskertzen" duela azpimarratu du Azpeitiko bizilagunak.

Laguntzaile lanetan "gustura" sentitzen dela eta zeregin horrek "denbora pasatzen" laguntzen diola adierazi du Merinok; horregatik jarraitzen du urtez urte horretan. Pinok eta biek "gure emazteengatik izango ez balitz...", esaten zutela gogoratu du, hura zendu zenetik, egunerokoan haren falta "ikaragarri" sumatzen duela aitortuta.

Danbor hotsen festa

Azpeitira ezkondu aurretik, Tolosan ikusten zuen danborrada ibartarrak. Dena den, Azpeitira etortzean, Sanjuandegiko taldearekin hasi zen Merino danborra jotzen. Gerora, Loiolabide Zahar elkarteak sortu zuten, eta bazkideek danborradako taldea osatzeko "ilusioa" zutela aitortu du. "Ezin hobeto" iruditu zitzaion ibartarrari elkarteko taldea sortzea, eta "gustura" hartu zuen zuzendari lanetan aritzeko eskaera ere. Elkarteko hamahiru kide eta horien bikoteak animatu ziren aurrena, eta izen ematea ireki zuten gero. "Taldeari danborrak jotzea tokatuz gero, zuzentzen ez nuela jakingo pentsatzen nuen,



Merino, Loiolabide Zahar taldea zuzentzen.

**"KLUBAK BADAHI ZENBAT LAN
EGITEN DUGUN, ETA HARRO SENTITU
NINTZEN SARIA EMAN ZIDATENEAN"**

**"LAGUNTZAILEEN LANAGATIK EZ
BALITZ, EZINEZKOA IZANGO ZEN ISB
DAGOEN LEKUAN EGOTEA"**

**"DANBORRADA KO TALDEA ONDO
PORTATZEN BADA, ZUZENDARIAK EZ
DU LANIK EGIN BEHAR IZATEN"**



ordura arte beti txapa jo izan bainuen. Horrek arduratzen ninduen gehien", gogoratu du. Dena den, danborrak jotzea egokituta ere, lortu zuen taldea gobernatzea. "Oso harro sentitzen naiz. San Sebastian eguna sekulakoa da".

"Gabonak pasatu bezain laster", bere kasa entseatzen du Merinok. "Etxean nahiz autoan" San Sebastian festetako diskoa jarrita aritzen da prestatzen Loiolabide Zaharreko zuzendaria. Taldearen hasierak ere ekarri ditu gogora, eta danborrada haiek "urduri" bizi izan zituela dio: "Orain, berriz, gehiago sartzen naiz taldeko dinamikan, eta gehiago gozatzen dut festaz". Hala ere, zuzendariak "ardura berezia" dutela uste du Merinok: "Adi egon behar dugu guztia ondo irten dadin".

Taldeko zuzendari izateak ez dio lan handirik ematen: "Taldea ondo portatzen bada, ez da lanik egin behar". Gainera, "festan parte hartzen duen orok ondo pasatu behar" duela uste du. Urte batzuk eman ditu Loiolabide Zaharreko zuzendari lanetan, eta aurreratu duenez, ez daki zenbat urtez jarraituko duen horretan: "Gazteagoei pasatu nahi diet testigua".

Helduen danborradan "ilusioz" parte hartzen du Merinok, baina bada festa horretan are gehiago gustatzen zaion beste hitzordubat: haurren danborrada. "Seme-alabak izan ditugunok badakigu zeinen ondo pasatzen duten horiek eta zeinen berezia izaten den danborrada haurrentzat. Ikaragarri gustatzen zait hori ikustea", adierazi du irribarrez. ■■■

Bat 580ren aurka



MIREN SEGUROLA

Euskarak, iraungo badu, hizkuntza normala izan behar du. Han eta hemen erabiltzen duguna, egunero, eginkizun guztietarako eta bi aldiz pentsatu gabe. Makulurik eta ordezkorik behar ez duena, normala eta normalizatua. Hori ez da, ordea, gaur-gaurkoz bere egoera. Hizkuntza gutxitua da, munduko hizkuntza handienen artean bizi dena. Euskarak milioi bat hitzun eskas ditu, eta parean dugun gaztelaniak, berriz, 580 milioi. Hori da bi hizkuntzen artean dagoen distantzia.

Hain zuzen, galtzeko arriskuan dagoen hizkuntza delako, lege babesa beharrezkoa du euskarak. Galtzeko arriskuan dauden animaliak zaintzen ditugu, gune naturaletan babesten ditugu eta horietatik zabaltzeko neurriak hartzen dira. Erabat barneratuta dugu horrela izan behar duela, badakigulako animalia mota bat galtzen den bakoitzean berreskuratzeko ezinezkoa den altxor bat galtzen dela. Hizkuntzekin ere beharrezkoa da kontzientzia hori lantzea, mundu globalizatu honi egiten dioten ekarpena kontuan hartzea.

Teoria oso polita da, baina neurri praktikoak behar dira

gure hizkuntza eta haren arnasmuneak zaintzeko. Horri erantzuteko asmotan sortu zen Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa. Tresna horren helburua da hirigintzako zein beste esparruetako proiektuek eta esku-hartzeek herriko egoera soziolinguistikoan duten eragina neurtzea. Alegia, herriko euskararen ezagutza, erabileran eta bizimoduan horiek zer ekarriko duten aurreikustea, neurtzea, baloratzea eta neurri zuzentzaileak proposatzea. Oso erraz ikusteko: zer gertatuko da ehun biztanleko udalerri euskaldun batean, bat-batean, hogei etxebizitza egiten badira? Zenbat biztanle berri izango ditu udalerriak? Nondik etorriko dira? Nola aldatuko da udalerri hori? Galdera horiei erantzuteko sortu zen ELE tresna, eta dagoeneko badu lege babesa, EAEn, 2016ko udal legean jaso baitzen, eta ondoren, 2019ko dekretuan arautu.

**NEURRI PRAKTIKOAK
BEHAR DIRA GURE
HIZKUNTZA ETA HAREN
ARNGASGUNEAK
ZAITZKEO**

Duela egun gutxi jaso nuen etxean Azpeitiko etxebizitza plana. Bertan zehazten da zein izango den udalaren etxebizitza politika datozen urteetan. Liburuxkaren arabera, plan horren helburua da herritarrei herrian bizitzeko bideak jartzea, eta geruza sozial guztietako azpeitiarrek izatea etxebizitza batean sartzeko aukera: babestutako etxeak eginda, dirulaguntzak jarrita, etxeak birgaitzeko laguntza emanda...

Berdintasun balioak kontuan izanda eginiko planteamendua da, ingurumena, generoa, hizkuntza eta herritarren beharrak erdigunean dituen. Bertan azaltzen denez, urbanizazio proiektu guztiei egingo zaie Azpeitian Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa.

Izan ere, arnasmune bateko herritarrei herrian bizitzeko, lan egiteko, erosteko, jolasteko... aukera erraztea bera da euskarak bertan goxo bizitzen jarrai dezan neurriak hartzea. Herriaren garapen jasangarri bat irudikatu nuen nik, gure hizkuntza babestu eta zabalduko duena.


Hori guztia eta gehiago beharko du; lege babesa eta ekintza zibila. Izan ere, gogoan izan behar dugu, Azpeitian ere hizkuntza gutxitua dela euskara, bat 580ren aurka dela hemen ere. ■

KOMUNIKAZIO MULTIMEDIA



egunkari

1



telebista

1



4
aldizkari



7
atari digital



B

BALEIKE

K

KARKARA

erlo

ERLO



MAXIXATZEN

**U
K
H**

UROLA KOSTAKO
HITZA


U

UZTARRIA

Z_H

ZARIAUZKO
HITZA

AMAIUR, ASPALDI BATEN





ASPALDITIK GATOZ,
URRUTIRA GOAZ



IRAURGI
ikastetxea

BATXILERGOKO MATRIKULAZIOA

www.iraurgi.eus | 943 81 02 10

WEBGUNEAREKIN LAGUNTZEA NAHI?



- WEB DISEINUA ETA ANALITIKA
- SEO LANAK ETA SEM KANPAINAK
- SARE SOZIALEN KUDEAKETA
- BIDEO KORPORATIBOAK
- POSTA ELEKTRONIKO BIDEZKO MARKETINA



GUKA
ZERBITZUAK



Kontzientziak astintzeko

Urola ibaiak hamaika altxor gordetzen ditu, baina jendearen utzikeria tarteko, zaborrez eta hondakinez josita ageri da sarritan. Urola Bizirik natur taldeko kideek eta udalak kezka bizi dute hori. Martxoan, Urola ibaiaren Azpeitiko zatia garbitu dute. Zazpi tona hondakin inguru biltzea aurreikusten dute.

Testua: **Maialen Etxaniz**. Argazkiak: **Urola Bizirik**.



ZABORREZ BETETAKO HAMAR KILOMETRO LUZE

Urola Bizirik talderarekin adostuta eta udalaren eskariz, Txukun enpresa arduratu da Urola ibaia sakon garbitzeaz. Guztira, 9,8 kilometro garbitu dituzte. Hain zuzen, Azkoitiko San Juan futbol zelaiaaren paretik hasi eta Lasaora arteko zatia garbitu dute. Urola Bizirikeko kideen arabera, hori da zabor gehien pilatzen den zatia: "Azkoitiko Eroski saltokiaren atzeko aldeko nahiz Azpeitiko herriguneko ibai bazterrean pilatzen da zabor gehien".

"GARENAREN ISLA"

Urola Bizirik natur taldearen eta Azpeitiko Udalaren elkarlanari esker, Urola ibaia garbitzen aritu da garbiketa enpresa bat martxoan. Duela bi urte sortu zuten Urola Bizirik, eta orduz geroztik, ibaiaren egoera salatzeko lanetan aritu dira. Bide horretan jarri ziren harremanetan udalarekin, eta elkarlanak eman ditu fruituak. Natur taldeko kideetako bat da Luis Juaristi, eta hark gertutik jarraitu ditu azken asteetako garbiketaren nondik norakoak. Hark dio Urola ibaiaren itxura "penagarria" herritarren jarreraren adierazle dela: "Urola ibaia garenaren isla da".



PLASTIKOA ETA EGURRA, EDONON

Aurten Urola ibaia garbitu dute, eta iaz Ibaieder eta Errezil errekek. 2022ko ibai garbiketak utzitako datuak aldizkari hau argitaratu ostean jakinaraziko dituzten arren, zenbakiak iazko joerari eutsiko diotela aurreikusten dute egitasmoaren sustatzaileek.



ASKOTARIKO MATERIAL KUTSAKORRAK

Azpeitian barrena egiten duen ibilbidean, txoko desberdin ugari zeharkatzen ditu Urolak. Eremuaren arabera, bateko edo besteko materialak aurkitzen dituzte. "Ez da material bera jasotzen herrigunean edo industriaguneetan". Iaz, 160 kilo egur, 380 kilo txatar, 120 kilo plastiko, 60 gurpil eta 2.660 kilo errefusa atera zituzten Ibaieder eta Errezil ibaietatik. Aurtengoan, bildutako material kopuruari erreparatuta, plastikoa nagusituko dela pentsatzen dute.

Ontzi arinak, zorroak, eta, oro har, plastikozko material asko pilatzen da Urola ibaian. Hori dela eta, plastikozko ontzi bakar batek desagertzeko 500 urte inguru behar dituela gogoratu du Juaristik. Dena den, azpimarratu du badirela bereziki kutsakorrek eta arriskutsuak diren materialak, hala nola autoetako bateriak eta pilak. "Mota horretako materialek ibaiko ura kutsatzen dute, kalteak eraginez Urolako faunan eta floran. Uste baino arriskutsuagoak dira".



UDABERRIAN ETA UDAN, EZKUTUAN

Udazkenean zein neguan, ibaiko landareak eta zuhaitzak biluzten direnean, ikusten da ondoen zenbat zabor pilatzen den Urolaren bazterretan. Udaberriarekin zuhaitzak loratzen hasten dira, eta, ondorioz, zikinkeria ezkutuan gelditzen da. Aitor Bereziartua Ingurumen zinegotziak azaldu duenez, horregatik egin dituzte garbiketa lanak martxoan, "lanerako errazagoa izango zelakoan".



ARDURA ETA ZAINZA, ESKUTIK

Bildutako hondakinak Lapatzera eraman dituzte, han gaika sailkatzeko. Ateratako argazki eta bideoekin erakusketa osatuko du Urola Bizirikek, ondoren edukia herriko ikasleekin lantzeko.



EGOERAZ JABETU ETA JOERAK HOBETU

Urola ibaiaren garbiketak "irakasgai" gisa balio dezan nahi dute Urola Bizirikek eta udalak; izan ere, jendeak ibaia garbi mantentzea eta hara zaborrik ez botatzea da xedea. Azken 30 urteetan Urola ibaiaren egoera hobetu egin dela diote, hartu diren hainbat prebentzio neurri tarteko, hala nola ibai ertzetan jarritako sareak edo zenbait lekutako iragazki berriak. Hala ere, helburua lortzeko asko falta dela diote, eta bide horretan lanean jarraituko dutela azpimarratu dute. ■■■

SOKA LUZEAN



JANIRE ALKORTA

Energia nuklear berdea?

Nolabait zentral nuklearrekin familiarizatuta gaudela esan genezake. Etxe guztietako pantailetan ikusi izan ditugu noiz edo noiz Springfieldek zentral nuklearreko irudiak; Homer kontrol postuan arrosa koloreko donutsak jaten, Burns jauna erradioaktibitatez josita pasean eta abar luze bat.

Europako Batzordeak abenduaren 31n gas nuklearra eta naturala trantsizio berderako jardueren zerrendan sartu zituela jakin genuenetik, zentral nuklearren inguruko eztabaida indar handiz itzuli da. Baina *Simpson* telesailean ikusitakoaz haratago, zer dakigu zentral nuklearrei eta energia nuklearrari buruz? Ezer gutxi, nik uste.

Izenak ondo adierazten duen moduan, zentral nuklearrek atomo baten nukleoan dagoen energia baliatzen dute energia kantitate handiak lortzeko.

Atomoa? Nukleo? Bai, ni ere larunbatean Exkerretegira nola joan pentsatzen ari nitzen fisika-kimika-koklasen hartan.

Atomoa elementu bat zati daitekeen parterik txikiena da. Adibidez, aluminioa infinitu aldiz apur daiteke, baina iritsiko da aluminioa bere propietate kimikoak galdu gabe gehiago apurtu ezingo dugun une bat.

Atomoak hiru partikula motaz daude osaturik; protoiak, elektroiak eta neutroiak. Protoiak eta neutroiak atomoaren erdigunean (nukleoan) kokatzen dira, eta elektroiak nu-

kleoaren inguruan biraka ibiltzen dira. Ideia bat egin dezagun: neutroiak eta protoiak kolore desberdineko ardi kaka aleak izango lirarteke (nukleoak), eta elektroiak, kaka pilo horren inguruan eten gabe biraka dabilzan euliak.

Energia nuklearra bi modutara lor daiteke: fisio edo fusio nuklearraren bitartez. Fisiozko erreakzioetan, nukleo astun bat (adibidez, uranioarena) neutroiz bonbardatuz, bi nukleo arinagotan banatzen da. Prozesu horretan neutroiak eta energia askatzen dira. Neutroi horietako bakoitzak beste nukleo baten fisioa eragiten du, kate erreakzioa sortuz. Askatzen diren neutroiak ez badira kontrolatzen, prozesu ez kontrolatua sortzen da; bonba atomikoa. Neutroiak xurgatzen badira, ordea, erreakzioa kontrola daiteke, erreaktore nuklearretan egiten den moduan.

Zentral nuklearretan ura berotzeko erabiltzen da fisio kate erreakzioan sortutako energia, ura lurrin bihurtuz. Lurrina turbina formako sorgailu batera garraiatzen da *et voilà*! Lortu dugu ezinbestekoa bihurtu zaigun elektrizitatea. Zentral nuklearraren inguruan gezur asko zabaldu dira, baina ukaezina da uranioaren fisioan sortutako materialak kaltegarriak direla izaki bizidunontzat. Horien biltegitartean aurrerapauso handiak eman diren arren, 300 urte baino gehiagoz edukiontzi berezi batzuetan gorde beharko lirarteke. Gai delikatuak da nuklearrarena, baina geratzeko etorri dela ematen du. Oinarrizko kontzeptuak jakinik, horren inguruan informatzeko eta hausnartzeko txanda zuena da. ■

BOTEPRONTOAN



IGNACIO ARAKISTAIN

Europaren bihotzean

Herrik urrun aldizkarirako idazten ditudan lehen hitzak dira hauek.

Herritarrekin nire istorioak partekatzea modu paregabea iruditzen zait milaka kilometrora egonda ere lotura mantentzen jarraitzeko. Iragan inperialak bazterrak eraikin izugarritz bete zituen hirian, idolotzat ditudan zenbait musikariren lanaz gozatzen ari naiz zuzenean eta gertutik. Nahitaezko geldilekua baita Viena musikaren munduan entzutetsua den edonorentzat. Egunotan, ordea, Europaren bihotzean dena da kezka eta ezinegona.

Azpeititik Alacantera dagoen distantzia bera dago Austriatik Ukrainako mugara. Eslovakia pasatuz gero, lasturarekin aurrez aurre topo egiten du batek. Ugariak dira hirian manifestazioak eta ekintzak, vienarrek presente baitute oraindik 1945ean hiriak jasandako okupazioa. Berlinen antzera, aliatuek hiria hartu eta zatikatu egin zuten 1955ean, Estatu Itunak berriro batu zuen arte. Pandemiaren hondarreak etorria nintzela eta, gogoz ekin nion jardunari, baina munduaren egoerak berriro goibeldu nau. Garai ilunotan, Beethovenek musikatutako Schillerren hitzei heldu beharko: "*Seid umschlungen, Millionen!*" (Besarka zaitezte gizakiok!). ■



TiEN21ESNAOLA

ZATOZ
DENDA BERRITUA
EZAGUTZERA!



Pablo VI, 3 · Tel.: 943-08 03 55 · esnaelek@outlook.com

DOAN EZ DA DEBALDE



Euskararen plaza gara, herriaren irudia
eta komunitatearen ahotsa
ELKARREN BEHARRA DUGU

EGIN BAZKIDE

bazkide@ukt.eus 943-81 38 41

